

# Prentsa oharra

## Nota de prensa

### **Politika orokorrari buruzko urteko adierazpena.**

**Urriaren 31n, 10:00etatik aurrera**, Donostiako Udaletxeko udalbatzar aretoan, **Politika orokorrari buruzko urteko adierazpena** egingo da.

#### **Saioaren garapena, segidakoa izango da:**

1- Donostiako alkate Eneko Goiaren urteko politika orokorreko adierazpena. Iraupena, 50 minutu.

15 minutuko etenaldia.

2- Udal taldeen txanda, txikienetik handienera (Elkarrekin Donostia, PP, PSE-EE, EH Bildu, EAJ-PNV). Iraupena, 20 minutu talde bakoitzeko.

3- Donostiako alkateak udal taldeei erreplika egiteko. Iraupena, 15 minutu.

4- Udal taldeen txanda, txikienetik handienera (Elkarrekin Donostia, PP, PSE-EE, EH Bildu, EAJ-PNV). Iraupena, 10 minutu talde bakoitzeko.

5- Etenaldia. Udal taldeek 2 ordu izango dituzte Politika Orokorreko urteko Adierazpenean sartzeko ebazpen proposamenak egiteko. Talde bakoitzak, gehienez, bi proposamen aurkezteko aukera izango du. Epe hori amaituta, taldeek ordubeteko epea izango dute, gai bereko proposamenei buruz zeharkako proposamenak egiteko.

6- Jarraipena. Aipatutako epeak amaituta, saioari berriro ekingo zaio. Udal taldeek, txikienetik handienera, ebazpen proposamenak aurkezteko txanda izango dute. Iraupena, 10 minutu talde bakoitzeko.

7- Udal taldeek txanda izango dute gainerako udal taldeek aurkeztutako ebazpenei buruz iritzia emateko. Iraupena, 5 minutu talde bakoitzeko.

8- Ebazpen proposamenen bozketa. Behin eginda, saioa amaituko da.

Donostia, 2023ko urriak 30